

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OYÓN-OIONGO UDALA

Hiri-antolamenduko plan orokorraren 11. barruko aldaketa. Esposizio publikoa

Oyón-Oiongo Udalak Oyón-Oiongo hiri-antolamenduko plan orokorraren 11. barruko aldaketa (egiturazkoa) onetsi du hasiera batean. Antolamendu xehatuko eremua: oinarritzko azpiegituren eta hondakin solidoak (H.4), ez-arriskutsuak eta geldoak ezabatzeko azpiegituren eremua lurzoru urbanizaezinean, kategoria definitu gabea. Sustatzailea: Ecoreinares SL.

Hasierako onesprenak automatikoki eteten ditu lursailen partzelaziorako, eraikuntzarako eta eraispenetarako lizentziak, barruko aldaketaren eremuan. Lizentziak gehienez ere 2 (bi) urtez etengo dira, eta barruko aldaketa hori behin betiko onartzen denean iraungiko dira.

Jendaurrean jarri da aldaketa osatzen duen dokumentazioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei eta udalerriko administrazio-batzarrei jakinarazten zaie, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten. Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin zaie.

Jendaurrean jartzea: epea 45 (berrogeita bost) egunekoa izango da iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Administrazio-espeditentea jendaurrean egongo da Oyón-Oiongo Udalaren bulegoetan. Administrazio-espeditentea esteka honetan egongo da eskuragarri: <https://www.ayuntamientodeoyon.com>.

Jendaurrean jartzeko aldiari, beren burua ukitutzat dutenek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Aldaketaren azalpen-saio publikorako deialdia egin da. Bilera hori 2025eko uztailaren 22ean egingo da, Bazterra aretoan (Sortez plaza), 12:00etan. Bo250702B.

Oyón-Oion, 2025eko uztailaren 3a

Alkatea

JOSÉ MANUEL VILLANUEVA GUTIÉRREZ